



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Carmen Romeu sopranoak eta Albert Nieto pianistak omenaldia egingo diote Victoria de los Ángeles-i, XX. mendeko espainiar ahots handienetako bati

- Kontzertuari *Canta un ángel* izenburua jarri diote eta, besteak beste, Schubert, Debussy, Puccini eta Albénizen konposizioak interpretatuko dituzte, eta baita abesti herrikoiak eta estreinatuko diren beste bost pieza ere.
- Victoria de los Ángeles Espainiako lirikaren diva handienetako bat izan zen, mundu osoan ezaguna eta aitortua izan zena.
- Emanaldia martxoaren 29an izango da, asteazkenean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.

Bilbo, 2023ko martxoaren 27a. – Arriaga Antzokiko foyerrak kontzertu oso berezia eskainiko du asteazken honetan, 19:30ean, **Carmen Romeuren** eskutik. Valentziako sopranoak, **Albert Nieto** pianista lagun duela, omenaldia egingo dio XX. mendeko espainiar musikaren diva handienetako bati, **Victoria de los Ángeles** (Bartzelona, 1923ko azaroaren 1a – Bartzelona, 2005eko urtarrilaren 15a) Bartzelonako soprano bikainari, zeinak arrakasta handiak lortu baitzituen bere ibilbidean zehar, besteak beste, Milango Scalan, Parisko Operan edo New Yorkeko Metropolitan tenpluetan. Izan ere, 50eko hamarkadan, Estatu Batuetan lirikaren hiru diva handietako bat izan zen, Maria Callas eta Renata Tebaldirekin batera. Teresa Berganza handiak zera esan zuen hari buruz: *“Callas artista dramatiko handiena izan zen eta Victoria, berriz, abeslaririk osoena. Nire eredu nagusia izan zen, tira, guztiontzat izan zer eredugarria”*.

Aurten, 2023an, Victoria de los Ángelesen jaiotzaren mendeurrena ospatzen da, eta Carmen Romeuk eta Albert Nietok efemeride hori ospatu nahi izan dute, ***Canta un ángel*** izeneko kontzertua bultzatuz. Bertan, elkarrekin, Schubert, Debussy, Puccini, Albéniz, Toldrà, Montsalvatge, Alicia de Larrocha, García Abril, Piazzola, Albert Guinovart, Ovalle, Moustaki eta abesti herrikoiz ziprztindutako errepertorio ederra interpretatuko dute. Gainera, programaren barruan bost pieza estreinatuko dituzte, eta horietako bi Albert Nietok konposatutakoak dira. Juan Duránek, Federico Mompouk eta José Luis Turinak sinatu dituzte beste hirurak. Mompourena bada berezia, izan ere Victoria de los Ángelesi dedikatu zion egileak pieza hori baina ez zen inoiz erakustera ausartu. Orain, Carmen Romeuk eta Albert Nietok aurrenekoz interpretatuko dute konposizio lana.

Albert Nietok berak honela azaltzen du diva katalanaren omenaldiaren zergatikoa: *“Inoiz gehien hunkitu nauen kontzertuetako bat Alhambrako Mitreen Patioan entzun nuen, zorte hori izan nuen; leku idiliko hartan, Victoria de los Ángelesen ahotsa pianista gazte baten bihotzean sartu zen. Harrezkero, ahots bikain hari zerion Fauréren*

abestien oroitzapena etengabea izan da nire bizitzan zehar. Hori dela eta, Victoria de los Ángeles bere jaiotzaren mendeurrenean oroitzeko beharra sentitzen nuen, eta bere ahotsaren legatu handia goraiatzeko beharra, bai zuzenean entzuteko zortea izan zutenentzat, bai bere presentzia eszenikoagatik liluratuta geratzeko aukerarik izan ez dutenentzat. Haren musika-maisutza eta haren izaera eskuzabal eta apala banaezinak dira; ez zuen inoiz protagonista gisa azaltzerik nahi izan, eta ezta omenaldirik ere. Orain, nirea eskaini nahi diot, esker onez, aspaldiko kontzertu hura eta haren ahotsarekin gozatuz eman ditudan orduak direla eta". Hitzordua etzi da, asteazkenean, asteazkenean, 19:30ean.

Victoria de los Ángelesi buruz

Victoria de los Ángeles Bartzelonan jaio zen, 1923ko azaroaren 1ean. Unibertsitateko gela hutsetan eta Parainfoko aretoan jo zezakeen pianoa abeslariak, eta horiek izan ziren haren haurtzaroko eta gaztaroko eguneroko ingurunea. Nerabezaroan, Victoria de los Ángelesek modu autodidaktikoan landu zuen bere tenperamentu artistikoa.

Espainiako Gerra Zibilaren ondoren, Conservatori del Liceu kontserbatorioan sartu zen. 1940an Radio Barcelonako lehiaketa bat irabazi zuen eta saria Bartzelonako Teatre Victòria antzokian *La Bohème* antzeztea izan zen. Horrela hasi zen Victoria de los Ángelesen kontzertista ibilbidea.

1944an, bakarkako debuta egin zuen Palau de la Música Catalanen eta, 1945eko urtarrilean, debut ofiziala egin zuen Gran Teatre del Liceu antzokian, *Le nozze di Figaro*ko Almaviva kondesarena eginez. 1947an, bere herrialdean ezaguna zen dagoeneko, eta Genevako Lehiaketa ospetsuko lehen saria irabazi zuen, nazioarterako jauzia eginez: Londres, Milan, Paris, New York... Metropolitan-en etengabe abestu zuen 1951tik 1961era, bertako diven artean kokatuz, Maria Callas eta Renata Tebaldirekin batera. Ospetsuak izan ziren Buenos Aireseko Colón Antzokian egin zituen emanaldiak eta Japonia, Australia, Hegoafrika, Errusia eta Europa osoan zehar egin zituen birak.

Bere ibilbide bizian hogeita hamabost opera baino gehiagoko protagonista izan zen. Horietako asko hilezkortuta daude egindako grabazio ugarietan, zeinak gaur egun erreferentzia eztabaida ezintzat hartzen baitira. Aipatzekoak dira, halaber, Kataluniako eta Espainiako musika tradizionala hedatzen lagundu zuten errezitalak eta kontzertuak, baina baita Pau Casals, Joaquín Rodrigo, Frederic Mompou, Xavier Montsalvatge, Oscar Esplà, Héitor Villa-Lobos eta Eduard Toldrà konpositoreenak ezagutzera emateko egin zituenak ere.

Bere azken agerraldien artean, aipatzekoak dira 1989an Palau de la Música Catalanen egindako debuta ospatzeko kontzertua; 1992an Gran Teatre del Liceu-n egindako errezital historikoa, Manuel García Morante lagun zuela, eta urte hartan bertan Bartzelonako Olinpiar Jokoen amaiera ekitaldian egin zuen parte hartzea. Bere ibilbide profesionalak 1997ko abenduaren 28ra arte jarraitu zuen, bere azken kontzertu publikoa egin zuen egunera arte: Albert Guinovart lagun zuela izan zen, Bartzelonako Teatre Nacional de Catalunya antzokian. 2005eko urtarrilaren 15ean hil zen, Bartzelonan.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus